

Ondarroa: hondakinak batzeko sistema erabakitzeko prozesua

Lehenengo saioak:

**Gaiak:**

1. Sarrera: ongi-etorria eta kokatzea
2. Hondakinak gaur egun: arazoak eta ondorioak
3. Beste bilketa-sistemak azaldu, ezagutarazi.
4. Zalantzak argitu, gustatzen zait, ez zait gustatzen
5. Balorazioa

**Asistentzia:**

**80** lagun

Gizonak 26 (%32,5)

Emakumeak 54 (67,5)

	< 25	25-50	50-65	>65
E	1	9	<b>20</b>	<b>21</b>
G	2	8	6	9
Guztira	3	17	<b>26</b>	<b>30</b>

**Esan zirenak:**

**GUZUR ETXI**

Ondarroa: hondakinak batzeko sistema erabakitzeko prozesua

<b>Talde txikiek eta plenarioan</b>	<p>3. aukera da egokiena.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 1.taldea: Denak ikusten duguna atez atekoaren aldeko apustua da. BFAak orain ematen dituen diru-laguntzak sukaldatu gabekoak biltzeko sistemarako da. Salatu egin behar da hori. Bestelako diru-laguntza negoziatu egin beharko litzateke.</li> <li>• 2.taldea: 1.aukera deskartatu dugu konpletamente, 2.aukera ona da, baina denok ez badugu ondo egiten, ezin da. Hortaz, egokiena 3.aukera dela ikusi dugu. Gero, kuboak non, nola (kanpoan, barruan, komunitarioa...)... hor ikusten dugu arazoa.</li> <li>• 3.taldea: Ez dugu zehaztu aukerarik. Ahalik eta gehien birziklatzearen aldeko apustua egin behar dela argi dago. 3.aukerarekin zalantzak egon dira etikari dagokionez eta baita intimitatearen babesari dagokionez ere. Batzuen postura errezeloa, beldurrekin...Besteek aurrera 3.aukerarekin. Atez atekoarekin izan dugun eztabaida da ea kapazak izango ote garen derrigortzeko (isunak jartzeko...). Abantaila, etxea urrean jasotzen dela.</li> </ul> <p>Galderak edo aipamenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez betetzeak zein ondorio izango lituzke? isunak ipiniko litzateke? Sistemak berak betetzera behartzen duela erantzun da.</li> <li>• Batzarrera etorri ez direnei informazioa zabaltzea edo helaraztea lortu beharko litzateke.</li> <li>• 3. aukerarekin lotuta, kudeaketari dagozkionez, konpostajerako planta non kokatuko litzateke? Eta kalterik edo ondoriorik izango luke inguruan? Usaina adibidez? Gaur egun ez da arazoa, ondo eginez gero, ez da usainik izaten.</li> <li>• Koherentzia gauza guztiakin eskatuko nuke Udalaren aldetik: garbitasuna (txakur-kakak...)...</li> <li>• Sistema mixtoa zergatik ez? Eta horrela, jendea erakarri dezakegu. Jendea, behin zer den ikusita, kontzientziatu eta animatuko litzateke.</li> <li>• Mankomunitate guztiak erabaki beharko luke eredu bera? Bai, horren arabera egin da Sporako kalkulua.</li> </ul>
	<b>KAMIÑAZPI</b>
<b>Sporaren azalpenak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Datu gehiegi eman dira, kolore gehiegi... Sinpleago eman behar dira, bisualagoa. Kontenedoreak-eta marraztu, grafikoagoa. Bestela, galdu egiten da bat.</li> <li>• Kanoiarekin, horrela, hain gertutik botata, oso txiki ikusten da, eta hainbeste zenbaki, hain txikiak, ez dira ikusten.</li> <li>• Hutsunea; datu ekonomikoak ondo daude, inportanteak dira, baina ingurumenean daukaten eragina ez da aipatu</li> <li>• Konpostagailua erabilia, oso errefusa gutxi sortzen da etxeetan</li> <li>• Beharrezkoa da kanpaina egitea jendeak ondo jakiteko leku bakoitzean zer bota behar den eta zer ez</li> </ul>

Ondarroa: hondakinak batzeko sistema erabakitzeko prozesua

<b>Talde txikiek eta plenarioan</b>	<p>1. aukera</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Komodoa da, baina garestia, hautazkoa da, ez da nahitaezkoa, eta organikoa bereiztea ez da praktikoa (sukaldatua eta ez)</li> <li>• Deskartatu egin dute</li> </ul> <p>2. aukera</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eraginkorragoa A aukera baino, baina hautazkoa da, karoagoa da, errefusa altuegia da oraindik</li> <li>• A baino hobe, baina borondatezkoa da</li> <li>• Arduraz jokatuz gero egokia izan daiteke, baina arduraz jokatzea falta da.</li> <li>• 3. aukerarako bidean zubi bezala izan daiteke, baina garestiegia litzateke, beraz ez dauka zentzurik</li> </ul> <p>3. aukera</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Erosoa da, lanpostuak sortzeko aukera dago, konpromiso handia eskatzen zaio. Alde txarrik ez diote ikusi</li> <li>• Onura gehien aukera honek; gainera, eroso da, kontenedoreak kendu egingo dira. Etxean jasoko dute zamarra.</li> <li>• Aukera desberdinak eman behar dira bizilekuaren arabera, kalean bizi edo hemen</li> <li>• Komunitateetan eztabaidak egongo dira, ardura hartzeko orduan, baina ikasi egin behar dugu ardurak hartzen. Arduraz jokatzen ikasteko aukera.</li> <li>• Adostasuna lortu behar dugu. Ez da erraza,</li> <li>• Ez gara munduko jabeak, baizik eta kudeatzaileak, kanpaina egin behar da kontzientziatzeko</li> <li>• Hernanin hasieran jende askok ez zuen ikusten, baina martxan jarri ondoren, zalantza zeukaten asko alde agertu dira</li> <li>• Gatazka-iturri izan daitekeenez beldurra ematen du</li> </ul>
-------------------------------------	--

<b>KOFRADI ZAHARRA</b>	
<b>Sporaren azalpenak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Atez atekoa jarritz gero merkeagotu egingo litzatekeen zamarra-tasa, Udalari ordaindu beharrekoa?</li> <li>• Organikoaren kontenedoreak leku guztietan jarriko dira?</li> <li>• Zer gertatzen da beste lekuetan (adibidez, Katalunian) atez atekoa martxan jarri eta denak ados ez badaude? Nola ematen zaio horri buelta?</li> <li>• Sistemak ez dira derrigorrezkoa edo nahitaezkoak, hori geure kontua da, edozein sistemarekin. Garrantzitsua da konpostaje-planta lehenbailehen egitea</li> </ul>

Ondarroa: hondakinak batzeko sistema erabakitzekeo prozesua

<b>Talde txikiek eta plenarioan</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Talde txiki guztiek ikusi dute 3. aukera dela egokiena</li> <li>• 1. eta 2. aukerak ez dute soluziorik ematen</li> <li>• 3. sistemarekin hainbat zalantza: lekuak, edukiontziak...</li> <li>• Gakoa da kontzientziazioan eragitea, jendea kontzientziaztea</li> <li>• Atez atekoan oztopo bat izan daiteke pertsona helduekin: bakarrik bizi badira, eskailerak jaisten, ondokoak lagundu edo arduratu... Pentsatu beharko da.</li> <li>• Non eta nola kokatuko dira edukiontziak?</li> <li>• Konposta egitea ez da asko kostatzen eta errefusa oso-oso gutxi geratzen da. Denok egingo bagenu...</li> <li>• Atez atekoa ezarri gero, zer gertatuko litzateke auzokonpostarekin?</li> <li>• 2. eta 3. Aukerekin konpostaje-planta sortu beharko da eskualdean</li> <li>• Aukera bat izango da lanpostuak sortzeko eta bertatik bertara kudeatzeko.</li> <li>• Lagundu egin behar zaie herritarrei, erakutsi eta ikasi, zer non bota behar den ondo jakiteko</li> <li>• 2. eta 3. Aukeretan kontainerrak gure esku leudeke, eta diru-laguntzak lortzeko aukera izango genuke Aldundian, negoziatu egin beharko lirateke.</li> <li>• Ondarroatik Alonsotegira 74 km daude, distantzia handia, eta ez su soluzionatzen problema. Eskualdean bertan behar da planta, eta denbora beharko da prestatzeko.</li> <li>• Erabakia ez du hartu behar Ondarroak bakarrik, inguruko herriek ere zer esana badaukate; alferrik ari gara geu bakarrik, eta ikusi beharko da zer dioten besteek.</li> <li>• 3 batzar egin dira, eta beste hiru ere egingo dira; baina nor elkartu garen ikusita, garbi dago beste jendearengana ere iritsi behar garela, hain konbentzitura ez daudenengana.</li> <li>• Jendea kontzientziazten eta ohiturak aldarazten lan handia egin behar da.</li> <li>• Gazteak falta dira gaur, jende helduak gehiago hartzen du parte.</li> </ul>
	<b>Sortzaile handiak</b>

## Ondarroa: hondakinak batzeko sistema erabakitzekeo prozesua

<b>Sporaren azalpenak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Udalak atez atekoaren alde egiten du?</li><li>• Zer du txarretik atez-atekoak? Hemen azaldutakoa dena ona da, ezta zerbait txarra edo ahuleziaren bat izango du bada?</li><li>• Arrainarekin usainaren arazorik izaten da? Atez atekoa jarri behara duten herrietan askotan entzuten zen zerbait da eta. Kezka organikoa biltzeko maiztasunarekin; usainagatik...Konposta egiten duen batek erantzun dio ezetz, berak konposta egiten duela eta ez dagoela horrelako arazorik.</li><li>• Gune osatuak behar dira, erraztu egin behar da. Orain egiten ez duenari zailtzen badiogu?</li><li>• Egun, alde zaharreko tabernari askok beiraren iglua urruti dutelako grisera botatzen dute beira eta berdura-plazan astearteetan ere bai. Berdura-plazakoa puntu beltza da.</li><li>• Atez ztekoarekin alde zaharraren izaera kontuan hartu beharko litzateke.</li><li>• Hondakinen gaia gai garrantzitsua da, baina beti gabiltza sistema ezberdinak jarri eta hobetzen eta inbertsio handiak egiten dira.</li><li>• Hondakinen bilketako munduan ikaragarri eboluzionatu duen gaia izan da azken 20 urteetan eta beti aurreikusi gabekoak azaltzen dira. Aurreikusi gabekoetarako "inprebistoetarako" poltsa bat gorde da?</li><li>• Inbertsioa amortizatuko dela esan da, baina benetan hala izango da?</li><li>• Ontzi arinak diru-sarrera suposatzen du?</li><li>• Gastuetan inbertso guztia aurreikusi da? Atez atekoa martxan jartzeko kuboak eta konpostaje planta eraikitzekeo gastuak ez daude aurrekontuan sartuta, ezta?</li><li>• 5.edukiontzia jarrita, nahi duenak giltza hartuko luke. Giltza hartzen ez duenari gehiago kobra diezaiokegu? Giltza hartzeak ez du esan nahi 5.edukiontzia egoki erabaltzen duzunik: giltza hartu eta erabili ez, edukiontzia ireki eta hondakinik ez bota...Edukiontziak irekiera bakarrik kontrolatzen du, ondo, gaizki, zenbat, nork bai, nork ez...ezin dugu jakin.</li><li>• Sistema berriarekin hiruhileko kuota igo egingo da?</li></ul>
---------------------------	--

Ondarroa: hondakinak batzeko sistema erabakitzekeo prozesua

Sistemak	Indarguneak edo alderdi positiboak	Ahuleziak edo alderdi negatiboak
5.edukiontzia. Sukaldatau gabea	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. BFAaren diru-laguntza jasoko litzateke</li> <li>2. Ez da konpostajerako plantarik sortu behar</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Birziklatze-tasa oso bajua</li> <li>2. Organikoa bereiztu egin behar da</li> <li>3. Kontenedoreak ipintzeko espazio-falta kale askotan</li> <li>4. Errefusa gehiago sortzen da</li> <li>5. Ondarroatik Alonsotegira distantzia handia, ez du arazoa konpontzen</li> </ol>
5.edukiontzia. Organiko osoa	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Erantzukizunez jokatzuz gero, aukera ona</li> <li>2. Konpostajerako planta sortzea aukera bat izan daiteke bertatik bertara kudeatzeko, lana sortzeko, etab.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Birziklatze-tasa ez hain altua, oraindik bajua</li> <li>2. Kontenedoreak ipintzeko espazio-falta kale askotan</li> <li>3. Diru-laguntza lortzeko zailtasunak</li> <li>4. Konpostajerako planta sortu behar da</li> </ol>
Atez atekoa	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Birziklatze-tasa altua, altuena hiruretatik</li> <li>2. Etxean jasotzen da, eroso</li> <li>3. Konpostajerako planta sortzea aukera bat da bertatik bertara kudeatzeko, lana sortzeko, etab.</li> <li>4. Arduraz jokatu behar da</li> <li>5. Kontenedorerik ez da egongo, kendu egingo dira</li> <li>6. Herri askotan dago martxan eta emaitzak oso onak dira</li> <li>7. Hasierako inbertsioa erraz amortizatuko da</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Usaina</li> <li>2. Intimitaterik eza</li> <li>3. Estetika</li> <li>4. Arduraz jokatu behar da, landu egin behar da: kontzientziazio-kanpainak</li> <li>5. Gatazka-iturri izan daiteke, beldurra ematen du</li> <li>6. Bakarrik bizi diren pertsona helduekin zailtasunak</li> <li>7. Diru-laguntza lortzeko zailtasunak, negoziatu egin beharko litzateke</li> </ol>